

Prentsa oharra

Nota de prensa

Bizikleta, uda honetan Donostian ibiltzeko aukerarik onena

Aparkalekuak indartzea, bidegorrien sarea hobetzea edo Dbizi sistema dira bizikletaren erabilera bultzatzeko gakoetako batzuk

Donostiako Udalak urratsak ematen jarraitzen du mugikortasun aktiboaren aldeko apustuan, bizikletaren erabilera bultzatuz. Hori dela eta, Udalak hainbat hobekuntza jarri ditu abian bizikletaren inguruan, uda honetan hiriko mugikortasunaren elementu nagusi bihur dadin.

Olatz Yarza Mugikortasun eta Garraio Jasangarriko zinegotziak adierazi duenez, "bizikletaren aldeko apustua hiriko mugikortasun-planaren parte da, eta hiri atseginagoa lortzea eta donostiarren bizi-kalitatea hobetzea du ardatz nagusi. Apustu horrekin batera, neurriak hartu dira bizikleta herritarrentzat erakargarria izan dadin. Azken aldian, Mugikortasun Zuzendaritzatik hainbat ekintza egiten ari gara bizikletaren erabilera sustatzeko, eta uda –eta eguraldi ona– une egokia da bizikletan mugitzeak zein nolako abantailak dituen ikusteko”.

Bizikletaren erabilerak gora egin du azken urteotan, eta Udalak are gehiago sustatu nahi du, ingurumenerako ez ezik, hori erabiltzen dutenen osasunerako ere onuragarria baita.

Horregatik, **Bizikletaren Plan Integrala** prestatzeko lanak amaitzen ari da Mugikortasun Zuzendaritza. Plan hori datozen hilabeteetan jarriko da abian, eta etorkizuneko bizikleta-sarearen ibilbide-orria zehaztuko du. Edonola ere, Udalak aurrera egiten jarraitzen du mugikortasun aktiboa lehenesteko bidean, hain zuzen ere garraiobide motordunen gainetik.

Bidegorri-sarea

Bizikleta garraiobide gisa aukeratzeko faktoreetako bat bidegorrien edo bizikleta-bideen sarea da. Ildo horretan, bizikleta-bide bereiziz osatutako 66,38 km-ko sarea du Donostiak (horietatik % 13 oinezkoekin batera erabiltzeko modalitatean, eta beste % 87a bizikleta-bide eta bizikleta-espaloietan), eta sare horri beste tarte batzuk txertatzea proposatzen da, guztira 1,5 km gehiago.

Gainera, 2024 eta 2025 bitarte, bidegorrien zoladura konpontzeko proiektua gauzatu da hiriko hiru ardatz hauetan:

- Salamanka pasealekua - Gernikako Arbola pasealekua - Bizkaia pasealekua - Eustasio Amilibia - Balezale kalea
- Satrustegi eta Infanta Kristina arteko goragunea – Tolosa hiribideko behearguneak hobetzea – Juan Olasagasti kaleko bizikleta-pasabidea

Prentsa oharra

Nota de prensa

- Frantzia pasealekua-Federico García Lorca pasealekua-Kolon pasealekua-Kale Berria

Gainera, gaur egun zoladura hobetzeko lanak egiten ari dira Gregorio Ordoñez kalean (Loiolako Erriberetara doan igoera) eta Egia kalean (Astiñene zubiaren eta Aldapa kalearen artean), eta hobekuntzak egiten ari dira Easo kalearen eta Pedro Egaña kalearen arteko txirrindularientzako eta oinezkoentzako bidegurutzean.

Dbizi zerbitzua

Duela 5 urte abian jarri zenetik, Dbizi da hirian gehien erabiltzen den garraio publikoko zerbitzuetako bat: 1,3 milioi joan-etorri erregistratu ziren 2024an. Geltokiei dagokienez, datorren ostegunean, hilak 19, *01 – Udaletxea – Ayuntamiento geltokia* handituko da. Udaletxean egiten ari ziren obrak zirela eta, geltoki hori Nautiko ondoan birkokatu zen. Orain, ainguratzeak ljentean birkokatuko dira berriro –hasiera batean zeuden lekuan– eta beste batzuk egun dauden lekuan utziko dira, Nautiko ondoan, alegia.

Bizikleta-aparkalekuak

Bizikleta erabiltzeko funtsezko beste elementu bat helmugatik gertu aparkatzeko malgutasuna da, eta, beraz, bizikletak behar bezala aparkatzeko espazioak ematea da Udala lantzen ari den ardatzetako bat.

Hala, 2023 eta 2024 artean, 33 bizikleta-aparkaleku iraunkor instalatu ziren hirian; hau da, 330 aparkaleku-plaza gehiago jarri dira. Ondorioz, gaur egun, **bizikletak aparkatzeko plaza-kopurua 8.400** inguru da.

Eta 2025erako aurreikuspenen arabera, aurtan **12 bizikleta-aparkaleku berri (120 plaza)** ezarriko dira, Donostiako hainbat auzotan banatuta. Egun, hiriko eremuetako eskaria aztertzen ari da Mugikortasun Zuzendaritza, era horretan, aparkalekuak ezartzeko kokagune egokienak zein diren zehaztu eta eremu bakoitzean eskaeraren arabera zerbitzua eman ahal izateko.

Baina bizikletak aparkatzeko sare iraunkorra zabaltzeko ahalegin horretaz gain, aurtengo udan ere aldi baterako bizikleta-aparkalekuak jarriko dira hondartza eta igerilekuetako inguruneetan. Joan den astean hasi ziren errefortzuko aparkaleku horiek instalatzen, eta hondartzen denboraldia amaitu arte egongo dira jarrita. Errefortzuko bizikleta-aparkaleku horiek hiriko bost eremu hauetan daude kokatuta:

- Zurriola pasealekuan (Kursaaleko kubo txikiaren ondoan)

Prentsa oharra

Nota de prensa

- Jesus Maria Leizaola pasealekuan (Zurriolako morruaren eremuan)
- Kontxa pasealekuan (Rafael Munoa)
- Kontxa pasealekuan (tunelaren ondoan, Antiguon)
- Anoeta pasealekuan (Paco Yoldi kiroldegiaeren ondoan)

Bizikleta-aparkaleku horiez gain, hirian 290 bizikleta-aparkaleku seguru daude, *Dbizi Parking* sistemaren barruan (hainbat abonuren bidez erabil daiteke sistema hori). Bizikletaren erabilera sustatzeko planaren barruan, Udalak sare hori handitzea aurreikusita dauka.

Bizikleta erabiltzailearen gida

Bizikleta garraiobide azkarra, eroso eta jasangarria bada ere, garrantzitsua da hori modu seguruan eta egokian erabiltzea; izan ere, ibilgailu guztiek bezala, zenbait arau bete behar dituzte espazio publikoan bizikidetza egokia izateko eta erabiltzaileen segurtasuna bermatzeko.

Bizikletaz mugitzeko modurik onenari buruzko informazioa emateko, Donostiako Udalak, Kalapie txirrindulari-elkartearekin lankidetzan, [Hiri bizikleta erabiltzailearen gida](#) argitaratu zuen joan den irailean. Dokumentu horretan, modu argi eta eskuragarrian jasotzen da ibilgailu horrek dakartzan onurei, araei eta betebeharrei buruzko informazio guztia, eta jardunbide egokien inguruko gomendio batzuk ere ematen ditu, bai bizikleta propioa darabilten erabiltzaileentzat, bai Dbizi zerbitzu publikoko bizikletak darabiltzaten erabiltzaileentzat.

Bizikleten Errolda

Mugikortasun Zuzendaritzak bizikletei zuzendutako beste zerbitzu bat Bizikleten Erroldarena da: gaur egun 5.464 bizikleta ditu erregistratuta.

Doako izapide erraz baten bidez, sistema horrek aukera ematen du bizikleta bat datu-base batean sartzeko, haren ezaugarri esanguratsuenak eta bastidore-zenbakia identifikatuz, bai eta jabearen datuak ere, lapurreta-arriskua minimizatzeko eta bizikleta berreskuratu ahal izateko.

Markaketa egiteko eranskailu bat erabiltzen da: Udalak ematen du eta kentzeko zaila da, bastidoreari lotutako erregistro-zenbaki bat dauka, eta zenbaki hori jabearen harremanetarako datuekin lotuta dago. Hala, bizikleta galdu edo lapurtuz gero, Udaltzaingoak bizikleta berreskuratzen badu, zuzenean jarri ahal izango da harremanetan jabearekin, eta, gainera, jabea identifikatu eta bizikleta berea dela egiaztatzeko prozesua erraztu eta arindu egiten da.

Prentsa oharra

Nota de prensa



Espazio publikoaren erabilera egokia

Nolanahi ere, bizikleta-erabiltzaileen erantzukizunen artean daude berariaz horretarako diren lekuetan aparkatzea eta bide egokietatik zirkulatzea. Horregatik, garrantzitsua da gogoraraztea debekatuta dagoela bizikletak zuhaitzetan, barandetan, bankuetan edo beste hiri-elementu batzuetan aparkatzea.

Era berean, azpimarratu behar da ibilgailu horiek zirkulatzeko eremuak hauek direla: bidegorriak, koexistentzia-eremuak eta galtzada. Beraz, debekatuta dago espaloietatik bizikletan ibiltzea, oinezkoentzat arriskutsua izan daitekeelako.

Donostia, 2025eko ekainaren 18a

Prentsa oharra

Nota de prensa

